

Kosovo: NATO bakarrik, NBEren sustengurik gabe?

• JONATHAN D. TEPPERMAN •

[FOREIGN AFFAIRS ALDIZKARIKO ZUZENDARIORDEA]

NATOk, 1995ean, serbiarrak amore ematera behartzeko lehendabizikoz bonbardatu zituenean, bere gain hartu zuen Nazio Batuek Bosnian betetzen zuten baketze eginkizuna. Ordudanik, Mendebaldeko jendeak nahasi egin ditu bi erakundeak. Badirudi NATO eta Nazio Batuen Erakundea elkarren trukagarri bihurtu direla. Ondorioz, egoki ematen du NATOk Kosovon esku-hartzeak.

Baina kontua da NATO ez dela Nazio Batuen Erakundea.

Munduan, NBE da nazioarteko erakunde nagusia. «Nazioartean bakea eta segurtasuna» iraunaraztea da haren eginkizuna, eta sortze beretik «ondorengo belaunaldiak gerraren zigortetik salbatzea». NATO guztiz desberdina da: 19 herrik elkar babestu eta, beste herriren batek haietako bati eraso z gero, elkarri laguntza emateko egindako itunaren adierazpidea da.

Nazio Batuen Erakundea mundua etorkizunean gerretatik babesteko sortu zuten. NATO, berriz, Europako Mendebaldeko Sobiet Batasunetik babesteko.

Nazio Batuen Gutunak ahalmena ematen dio Segurtasun Kontseiluari zigorak edo esku-hartze militarrek onartzeko, haren ustez «bakea arriskuan, bakea hautsita, edo eraso bat» gertatzen den guztietan. Ipar Atlantikoko Tratuak ez du horrelako araurik biltzen. Nazio Batuen Gutuneko printzipioen arabera jokatzeko promesa gabe, NATOk kideen lurraldean eraso bat gertatuz gero elkarren alde borrokatzeko konpromisoa baino ez dute beren gain hartzen.

Inondik ere Serbiak albaniarrek sarrraskitzean nazioarteko lege humanitarioak hautsi ditu, baina nekez jar zezakeen arriskuan NATOren lurraldea. Hor-

taz, zergatik sartu da tartean NATO? Nork bihurtu du mundu guztiko polizia?

Erantzuna 1994. urtean dago, NATOk Bosniako gerran esku hartu zuenean. Orduan argi ikusi zen NBEko bakezaintzaileak ez zirela gauza gerran ziharduten aldeak bereizita izateko, eta ondorioak ikaragarriak izan ziren. Hori ezin argiago gelditu zen 1995eko uztaillean, Serbiako indarrek NBEk Srebrenican zuen aterpe seguruaz jabetu eta musulmanak sarraskitu zituztenean, bake-zaintzaile holandarrek, ezinean, ezer ere egiten ez zuten bitartean. NATOren erantzuna serbiarrak bonbardatzea izan zen.

Bost hilabete geroago, Daytongo bake akordioa sinatu zen, eta NATOk tropek NBEko kasko urdinen lekua hartu zuten.

NATOk Bosnian egindakoek Segurtasun Kontseiluaren baimena zuten. Horrek legitimitate marka ematen zien. Mundu osoak ordezko aukeratu zuen NATO, jardun zezan.

Kosovon, berriz, ez da horrelakorik gertatu. NATO ez da inoiz kezkatu kanpo-onarpena lortzeaz Slobodan Milosevic mehatxatzen hasi aurretik. Izan ere, bazirudien NATOk buruzagiek nahita saihesten zutela NBE egin beharreko prozesu astuna. NATO, azkenean, serbiarrei erasotzen badie, bakarrik izango da, eta ezingo du eskatu mundu osoaren laguntza.

Axola dio horrek? NATOk mendebaldeko munduaren zati handi bat ordezkatzen du. Mendebaldean edo beste non-nahi, jende gutxi nahi du Kosovon odola isurtzen jarraitzea. Eta, hain zuzen ere, NATOren alde batekotasunak -Segurtasun Kontseilu menderakaitzak noiz erabakiko zain egon gabe, neurri erabakigarriak hartzeko haren

gaitasunak- bihurtzen du horren eraginkor NATOren jardunbidea.

NATO, bederen, zerbait egiten ari da serbiarren inguruan, edo egingo duela prometatzen. Ez litzateke hori txalotu behar? NATOk, erakundeko herri kideek elkarri babesa emateaz gain, nazioartean polizi eginkizuna ere bete nahi badu, ez genuke horretara bultzatu behar?

Beharbada. Baina, gutxienez, NATOn dauden herrietako politikariek eta jendeak oso argi izan beharko lukete zer gertatzen ari den.

Hori NATO da, eskualde-erakunde bat, soil-soilik, eta ez Nazio Batuen Erakundea. Baliteke mendebaldarrek batzuetan biak nahastea, baina apustu egin dezakezue ez zaiela gauza bera gertatzen errusiar askori. Mendebaldeak, nazioarteko legea bere eskuetan hartzen hasten bada, hobe du erantzun bat prest edukitzea, errusiarrek edo txinatarrek zergatik ez luketen gauza bera egin behar galdetzen dutenerako.

Nazioarteko legea ez da guztia, baina, era berean, egokitasuna ez da kontuan hartu beharreko gauza bakarra. Alde bateko ekintzak, askotan, alde anitzekoak baino errazagoak izaten dira, eta nor bere kabuz ibiltzea batzorde batetik igaro behar izatea baino askoz lasterragoa da, baina, izan, arrazoi batzuk izan genituen batzorde horiek sortzeko.

NATOk kideek, Nazio Batuen Erakundea eta horrek ematen duen legitimitatea alde batera utzi baino lehen, oso argi izan beharko lukete zehatz-mehatz zertan ari diren, eta prestatuta egon beharko lukete beste batzuek gauza bera egiten dutenerako.

• Erredakzioan itzulia

'International Herald Tribune'-tik hartua

hirusta...

JASONE OSORO

Bai, esan?

Telefono dei bat jasotzen duzu eta ahots goxo batek mezu bat daukazula esaten dizu. Berehala musika zerutiarra entzuten da eta jarraian maitasun adierazpen bat edo zorion agurra eskaintzen dizute. Gainera,



deia jasotzeaz bat mezulari batek zure etxeko atea jotzen du eta gosari egin berria edo larrosa sorta ederra opartitzen dizu. Ilusio saltzaileak dira. Jende-

aren artean zoriontasun hondarrak banatzen dituen enpresak. Brasilen era honetako zerbitzua eskaintzen duten 5.000 enpresa daude.

Zer egingo genuke telefonorik gabe? Larrialdi kasuetarako telefono zenbaki berezia daukagu, eguraldia jakiteko beste zenbaki bat, itxaropenaren telefonoa, HIESari buruzko argibideak ematen dituen, premia sexualak etxetik mugitu gabe ase ditzakegu, sofatik altxatu gabe Txinako janari exotikoaz goza dezakegu...

Garbi dago: nahita ere, ezingo ginatke bizi telefonorik gabe. Lerro hauek idazten ari naizela, iragarki telefoniko bateko pertsonaia gorrotagarriaren ahotza eta pibibiri, pibibiri musika enpalagosoan iritsi zaizkit bizilagunaren telebistatik eta nik neuk lau bider altxatu behar izan dut ditzosozko deiak erantzutera. Kablea eteteko tentazioa izan dut, baina... ustegabeen iristen diren dei horietakoren bat bada? Esaldi robotizatua beharrian aspaldian entzun gabe duzun ahots desiratua bada?

Maite dut telefonoa, batez ere nik nahi dudanean nik nahi dudanak deitzen badit.

...hemeroteka

Garaia

Apustu egiteko garaia da!

MARTA AGIRREZABALA
[EHNEko kidea]

(...)Denbora gutxian euskal gizarteak bere jatorria ahaztu eta baloreak galdu ditu, erabat hiritartuz eta bere jatorria era folklorikoan bakarrik gogoratuz: Zein polita den baserri (baserri=etxebizitza soila hartuta) batean bizitzea aste-buruak pasatzeko...

(...)Folklorista hutsak bihurtu gara gure jatorriari dagokionean, eta zentzu horretan izugarriko lana egin dute gure agintariek, maila handi batean, baserri-tarrak erabiliz; hortik nekez transmitituko dizkiegu geure izatea eta sustraiak gure ondorengoei. Baserriaren galerarekin gure nortasun osoa dago jokoan, esna gaitzen!

Egun hauetan Euro-para begira gaude haiek gurekiko errukituko direlakoan eta Euskal Herriaren interresak defendituko

dituztelakoan, ordezkatzen gaituen nazioa barne! Inozoak benetan gu. Europak aspaldi egin zuen apustu Euskal Herriko baserriak desagertu zitezten, urte asko dira jadanik, eta tarte horretan euskal gizarte, agintariak barne, lozorroan egon da, eta Euskal Herriari handik eta hemendik gero eta labankada sako-nagoak eman dizkiote. (...)

Borroka hau guztio-na da, ez soilik baserri-tarrarena. Euskal baserriaren alde apustu egiteko garaia da.



SERGEY / LE MONDE